

Paisaia

2000. urtean, **Paisaiaren Europako Hitzarmena** sinatu zuen Europako Kontseiluak Florentzian, eta, geroago, 2009an, hitzarmen horri atxikitzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak.

Paisaiaz honako hau dela esan daiteke: «**Lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natura edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita**». Eta, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren atarikoan esaten den bezala, kontu garrantzitsua da kulturaren, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren esparruetan, «**Europako natura eta kultura ondarearen funtsezko osagaia (...), gizakien ongizatea eta europar identitatea bermatzeko mesedegarria**» delako, hiriguneetan bezala landaguneetan ere, aipatuak eremu degradatuak izan zein kalitate handikoak.

Paisaia lurraldea antolatzeko politiketan jasotzea da aipatu hitzarmenarekin bat egitearen ondoriozko konpromisoetako bat. Hartara, EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasota dago paisaiaren aldetik tratamendu berezia izan behar duten ikuspen eremuak katalogatzeko beharra, bai eta paisaiak une horretan duen moldea hausten duen edozein obra edo jardun egin ahal izateko paisaiaren azterlana aurkezteko betebeharra ere.

Donostiako egungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean (HAPO) paisaia aztertu egiten da eta oro har kalitate onekoa dela esaten, baina onartzen da balio txikiagoko paisaia gune edo elementu batzuk daudela, batez ere hiri inguruak, industria inguruak eta landa inguruak elkartzen diren lekuetan. HAPON, besteak beste, C.6 "Paisaia Babeseko Eremuak" gainjarritako baldintzapena jasotzen da paisaia arloko kontuei lotutako eremuetarako.

Gogoeta horien guztien garapen moduan, 2016an, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoarekin, paisaiaren diagnostikoa eta ekintza plana egin zen Lau Haizeta ingururako. Hiri inguruko eremu hori, hiri ingurunearen eta landa ingurunearen artean kokatuta dagoelako, eta jasaten duen hirigintza presio handiaren ondorioz, paisaian balio handiko elementu askorekin batera nabarmen degradatuta dauden elementuak dituen "birika berdearen" adibide ona da.

Toponimoak berak adierazi bezala, Lau Haizetako parkeak eremu funtzionalaren zati handi baten gaineko bista bikainak ditu, eta zenbait talaietatik Jaizkibel, Urumea eta Oiartzungo korridoreak ikus daitezke; gainera, ikusgai dago bere eremuaren zati handi batetik. Horren guztiaren ondorioz, Donostiako paisaia erreferenteetako bat da.

Paisaje

En el año 2000 el Consejo de Europa firmó en Florencia el **Convenio Europeo del Paisaje**, al que posteriormente, en el 2009, se adhirió el Gobierno Vasco.

El paisaje se puede definir como **«cualquier parte del territorio tal como la percibe la población, cuyo carácter sea el resultado de la acción y la interacción de factores naturales y/o humanos»**, y como se recoge en el preámbulo del Convenio Europeo del Paisaje, es una cuestión relevante en los ámbitos de la cultura, del medio ambiente, de lo social y de la economía, por tratarse de **«un componente fundamental del patrimonio natural y cultural europeo, que contribuye al bienestar de los seres humanos y a la consolidación de la identidad europea»**, tanto en zonas urbanas como rurales, bien se refiera a zonas degradadas o a las de gran calidad.

Uno de los compromisos que se derivan de la adhesión al mencionado Convenio es el de integrar el paisaje en las políticas de ordenación territorial. Así, las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco recogen la necesidad de catalogar aquellas zonas visuales que deben tener un tratamiento paisajístico especial y de que toda obra o actuación que rompa el actual modelado del paisaje se acompañe del correspondiente estudio paisajístico.

En el vigente Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de San Sebastián, se analiza el paisaje calificándolo en general de alta calidad, pero se reconoce la existencia de algunos puntos o elementos paisajísticamente de menor valor, especialmente en los encuentros entre la zona urbana, industrial y rural. Se incluye en el PGOU, entre otros, el Condicionante Superpuesto C.6. "Ámbitos de Protección Paisajística" para las zonas sujetas a consideraciones de tipo paisajístico.

Como desarrollo de todas esas reflexiones, en 2016 se realizó, con ayuda económica del G. Vasco, un diagnóstico y Plan de Acción del Paisaje para la zona de Lau-Haizeta. Esta área periurbana representa un buen ejemplo de "pulmón verde" que por su ubicación en la transición urbano-rural y la gran presión urbanística que padece, presenta un paisaje con muchos elementos de alto valor junto a otros de considerable degradación.

Tal como sugiere el topónimo, el Parque de Lau Haizeta tiene vistas privilegiadas sobre gran parte del área funcional con varias atalayas que permiten dominar los corredores de Jaizkibel, Urumea, y Oiartzun y, a su vez, resulta visible desde gran parte de su territorio. Todo ello le convierte en uno de los referentes paisajísticos de San Sebastián.